

Interpelazioa

Iruñeko bulego batean nago oraintxe, arratsaldeko laurak dira, eta bakarrik nago. Jose Inazioaren artikulua irakurri dut eta bertan galdera zuzena egin dit, interpelatu dit –nik Urri bezala–, bigarrenaz, eta ezingo diot bigarrenaz ere itzuri egin. Galdetu dit Iruñeko autobus geltoki berrian Maltzagaraino autobusa hartzerik, hots, abertzale guztien arteko proiektu konpartitua abiarazterik badagoen, martxo-ko hauteskundeetara begira.

(Pausa)

Batek aitzina nola egin ez dakienean, zerbaitekin trabatzen denean, egiten ari dena utzi, dagoen tokitik altxa eta egurastera joan behar du burua argitzeko. Karrikara atera naiz, autobus geltokirantz. Zorionez bidetik zentzatu naiz, edo hankek norabide automatikoa hartu dute eta liburu denda batera sarrarazi. Adiskide baten liburu eta *Etorkizunaren historia* erosi ditut. Azken hau António Vieira XVII mendeko jesuita portugesak idatzi zuen eta aspaldi haren bila ari nintzen. Pentsatu dut ARGIArako hasia dudana kolaborazioan baliatu ahalko dudala nolabait, alderdi abertzaleek zer egin behar duten zehazteko tenorean. Hortik hurbil den kafetegi batean sartu naiz. Zoritzarrez kafea eskatu eta lagunaren liburu arakatzen hasi naiz, betebeharra geroratzuz.

(Pausa)

Kanpoan denbora gehiegi daramadala ohartu naizenean bulegora itzuli naiz, hasitakoa burutzeko asmoz. Zazpiak dira. Interneten sartu naiz, beti bezala, inspirazio eske. J. I. Basterretxearen azken artikulua, Auto Strip-tease izenekoa, online berrirakurtzera deliberatu naiz, baina, beti bezala, gauza batek beste batera eramaten du eta, ez dakit nola, *Le blog de l'exhib masculinera* iritsi naiz. Horrek idaztearen lana eta exhibizionistaren afana nolabait parekatzearen hausnarketara eraman nindukeen. Ez nau horretara eraman. Oso berandu egin zait, hama-



Angel Erro

Apalategi

Basterretxe

rak pasatxo dira. Historiala garbitu eta etxera abiatuko naiz.

(Pausa)

Etxera leher eginda, afaltzeko gogorik ere gabe, lo pixka bat egin nahiago izan dut telebista aurrean. Sakelakoaren alarma goizeko bostetarako jarri eta orduan ekinen diot hau bukatzeari.

(Pausa)

Ez dut esnagailurik aditu, amets gaizto batek iratzarri nau. Hotel nudista moduko batean nengoen –oraino ez zen amesgaizto–, jendearen hara-hona ugaria, gelatik gelara. Noizbait ospitale bat zela ohartu nintzen, erizain batek laringoskopia bat egin behar zidan, ahotik tutu estu eta luze bat sartuta, eta nik, nahigabea, glotisa ixten nion. Oinazea itzelezkoa zen. Itzartu aurretik erizaina apezpiku transformatua zen. Orain, esna ere, oinazeak darrai eta eztarria dut erlas-tua; uste dut hoztu egin naizela sofán loak hartzeagatik. Eztul egin dut. Modu merkean auto-psikoanalizatzea otu zait.

Argi dago ametsak *irrumatio* sinboliko bat (ezen ez –aldea sotila da, baina bada aldea– *fellatio* edo, euskaldun jatorraren ahoan, *pelaxio* bat) agertzen duela. Argi dago nire jarrera uzkurra dela eta eztarrian debeku sinboliko bat –dena da sinboliko– ezarri nahi dudala. Argi dago badela zerbait isildu nahi dudana. Zer izan daiteke? Goizeko hamarrak dira, etxe ondoko kafetegira jaitsiko naiz, argi eta kafe bila.

(Pausa)

Uste dut badakidala zer den. Albait gehien atzeratu dut dagoeneko gehiago atzera ezin dezakedan galderaren erantzuna. Josiren inter-

pelazioa. Zoritzarrez ez dut lar tarte aurizkietan, *auto* baino nik *trans* edo *inter* bera nahiago ditudala, nire herria *transbertzalea* dela, ongi azaltzeko. Labor-labor, ez dut uste bloketan –autopelazioan– hastera ekologikoagoa denik, biodibertsitatearen kontrako neurria deritzot. Baina ongi etorria. Niri benetan interesatzen zaidana pausetan dago. ■

Zoritzarrez ez dut lar tarte aurizkietan, *auto* baino nik *trans* edo *inter* bera nahiago ditudala, nire herria *transbertzalea* dela, ongi azaltzeko. Labor-labor, ez dut uste bloketan –autopelazioan– hastera ekologikoagoa denik, biodibertsitatearen kontrako neurria deritzot